

## MARTXOAREN 8AN BILBOK AITORTU EGINGO DU EMAKUMEEK COVID-19AREN PANDEMIAN BIZITZA SOZIALARI ETA EKONOMIKOARI EGINDAKO EKARPENEA

- Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Bilboko Udalak sentsibilizazio-kanpaina berri bat jarri du abian, gaur egungo osasun-krisian emakumeek egin duten lana erakusteko.

- *“Eta zu... nola moldatzen zara? / Y tú... ¿cómo lo estás haciendo?”* lema aukeratu da, emakumeek izan dituzten berdintasun eza eta zailtasunetan eragiteko eta, hala, erantzunkidetasun sozialari dei egiteko.

(*Bilbon, 2021eko martxoaren 1ean*). - Martxoaren 8a, **Emakumeen Nazioarteko Eguna** dela eta, Bilboko Udalak sentsibilizazio kanpaina berria aurkeztu du gaur goizean egindako prentsaurrekoan. Aurten, modu esanguratsuan, **gaur egungo osasun krisian emakumeek egin duten lana erakusten da.**

*Nekane Alonso* Bilboko Udaleko Berdintasun zinegotziak kanpainaren leloa eta helburuak azaldu ditu. *“Emakumeen ahalduntzea sustatzeko [Andre eta Jabe](#) estrategiaren esparruan, erantzunkidetasunaren aldeko neurriak bultzatzeko beharra aldarrikatu nahi dugu”,* adierazi du Alonsok.

Aurten, Berdintasun Sailak *“**Eta zu, nola moldatzen zara? / Y tú... ¿cómo lo estás haciendo?**”* lema aukeratu du. Esan duten moduan, *“mezu honekin emakumeok aurre egin behar izan diegun eta egiten ari garen desberdintasunak eta zailtasunak agerian utzi nahi izan ditugu”.* Gainera, hau zehaztu dute: *“**erantzunkidetasun sozialerako** deia da, eta ezinbestekoa da banakako partaidetza, gizonena eta emakumeena, bai eta taldekoa ere, enpresena eta erakundeena”.* Erantzunkidetasunari dagokionez, Bilboko zinegotziak esan du *“gure ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko eta talentua erakartzeko eta leialtzeko enpresa-estrategia bakarra izatea”* dela. *“Azken finean, produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzea”.* Nekane Alonsok adierazi du kanpaina honek *“emakume guztientzako mezu itxaropentsua, ahaldua eta guztiontzat,”* izan nahi duela.

### ERANTZUNKIDETASUNA LORTZEKO INPLIKAZIOA

Martxoaren 8a ospatzeko diseinatu den komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpainarekin, Bilboko Udalak hiru helburu lortu nahi ditu. Helburu horiek **erakundeen eta langileen inplikazioan** oinarritzen dira **bereziki, gizonen inplikazioan, erantzunkidetasunean oinarritutako eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunik sortzen ez duten lan-ereduak finkatzeko:**

1. **Emakume guztiek** osasun-krisiaren garai honetan egin duten **ekarpena** aitortzea.
2. Enpleguei, ekoizpenari eta zerbitzuei eusteko ezarri diren **lan-kudeaketako eredu** berriak aztertzea, baina **berdintasunaren aurrerabidean** eta **genero-ikuspegia txertatzeko** premian duten eraginari buruz ere hausnartzea.

3. **Erantzukidetasuna** sustatzea, emakumeen eta gizonen artean desberdintasunik ez sortzeko.

Prensaurrekoan, Berdintasuneko zinegotziak azaldu du zein izan den **emakume askok konfinamenduan eta pandemiaren hilabete hauetan bizi izan duten egoera**: “*etxean ordaindu gabeko lanak, eta adinekoen eta seme-alaben zaintza, emakumeen esku geratu dira berriro*”, eta gaineratu du: “*lan- eta familia-arloen arteko espazioen eta denboren mugak lausotu egin dira, eta batzuetan alde batera utzi dugu espazio pertsonala*”. Halaber, onartu du “*eremu pribatuaren erantzukizuna bere gain hartzeko orduan, gizonen eta emakumeen artean dagoen desberdintasuna inoiz baino nabarmenagoa dela*”.

Denboraldi honetan **familia eta lana uztartzean izan den eraginari** eta gerta litezkeen bestelako bereizkeria-moduei dagokienez, Berdintasun Sailak, [DENBBORA SAREA](#)n parte hartzen duten enprekin batera, COVID-19aren ondoren hartutako neurriak aztertu ditu eta emakumeen eta gizonen berdintasunean izan dezakeen eragina baloratu du.

Lehenengo ondorioen artean, nabarmentzekoa da enpresa-kudeaketarako eredu horiek dituzten enpresak, denbora hobeto kudeatzeko eta lana, familia eta bizitza pertsonala bateratzeko konpromisoa zutenak, izan direla egoerara ondoen egokitu direnak. Gainera, azaldu dutenez, erakunde horiek emaitza hobek izan dituzte beren mozkin-kontuan eta beren kontu ez-finantzarioetan, hala nola lan-giroan, emakumeen eta gizonen berdintasunean eta ingurumen-eraginean.

**Denbora Sareak** egindako azterlanean, 10 elkarrizketa egin zaizkie era bateko eta besteko sektore eta tamainako 10 enpresari, zeintzuen artean, guztira 3.902 pertsona baitauzkate beren plantilletan (2.110 emakume eta 1.792 gizon). Datuen arabera, gizonen eta emakumeen artean bada ehuneko handi samar bat baieztatzen duena etxeko lanak eta zainketak berdintasunez banatu direla; hala ere, gizonek joera dute berdintasun hori den baino handiago neurtzeko. Edozelan ere, lanen artean desberdintasunik badago, gizonek gehiago parte hartzen dute erosketetan, eta gutxiago zainketa-lanetan eta umeei eskolako lanekin laguntzeko lanetan. Gainera, gaur den egunean, eta egungo egoeran, ikus daiteke zelan emakumeek eta gizonen berdindu egin duten ehunekoa baimenei eta lizentziei dagokienez (% 86/% 87), eta, beraz, bide onean gaude erantzukidetasunezko kontziliazioa sustatzeko.

## **WEBINAR: “ERANTZUKIDETASUNEZKO KONTZILIAZIOA. BERDINTASUNAREN ERRONKA**

Beste ekintza bat, data honen inguruan gauzatuko dena, webinar bat izango da: asteazkenean egingo da, martxoaren 10ean, eta [webgunean](#) ikusi ahal izango da, 18:00etatik aurrera, “**Erantzukidetasunezko kontziliazioa. Berdintasunaren erronka**” izenarekin.

Online saio honetan, **Rosa Cobo Bedia** gaiak lantzen dituen teorialari, Unibertsitatean Generoaren Soziologiako irakasle titular eta unibertsitate horretako Genero eta Feminismo Ikasketetako Zentroaren zuzendariak genero-rolak aztertuko ditu, eta baita ere gizonen eta emakumeen jokabideak espazio pribatuan nahiz publikoan.

**Teresa Empar Aguado Bloisek** ere parte hartuko du webinarrean, eta kontziliaziorako gaur egungo neurrien eta horiek emakumeen beharretara ikuspegi feministatik egokitzeko etorkizuneko jarduera-ildoen inguruko hausnarketa egingo du. Valentziako Unibertsitateko Soziologia eta Gizarte Antropologia Saileko doktorea eta irakaslea da Aguado. Emakumearen Ikasketetarako Unibertsitate Institutuko (IUED) kidea da. Malagako Unibertsitateko Emakumearen Ikerketa Historikoen Elkartearen (AEHM) Burgosko Carmen dibulgazio feministaren saria jaso du. Haren ikerketa-ildoak Laneko Soziologia, Generoa eta Ekonomia Feminista dira.

## **KANPAINAREN ELEMENTUAK**

Datozen egunotan, udal kanpaina hau hainbat euskarri fisikotan eta hiriko altzarietan jarriko da. Euskarri digitalean, [www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus) webgunean eta Udalak sare sozialetan dauzkan kontuetan zabalduko da: **Bilbao Berdintasuna** –[facebook](#) eta [twitter](#)– eta **Bilboko Udala** –[facebook](#), [instagram](#) eta [twitter](#)-. Komunikabideetan ere zabalduko da.

## **SARE SOZIALAK**

- **BILBAO UDALA:** [Facebook](#) [Twitter](#) [Instagram](#)
- **BILBAO BERDINTASUNA:** [Facebook](#) [Twitter](#)

**#Martxoak8**

**#8Marzo**

**#Bilbao**

**#EmakumeenNazioartekoEguna**

**#DialInternacionalDeLasMujeres**

## BILBAO RECONOCE EN EL 8M LA APORTACIÓN DE LAS MUJERES A LA VIDA SOCIAL Y ECONÓMICA DURANTE LA PANDEMIA DEL COVID-19

- Con motivo del Día Internacional de las Mujeres, el Ayuntamiento de Bilbao pone en marcha una nueva campaña de sensibilización donde visibiliza la labor que las mujeres han desempeñado en la actual crisis sanitaria.

- El lema escogido ha sido “**Eta zu... nola moldatzen zara?/Y tú... ¿cómo lo estás haciendo?**” para incidir en las desigualdades y las dificultades a las que se han enfrentado las mujeres, y así hacer un llamamiento a la **corresponsabilidad social**.

(Bilbao, a 1 de marzo de 2021).- El Ayuntamiento de Bilbao ha presentado, en una rueda de prensa celebrada esta mañana, la nueva **campaña de sensibilización** con motivo del 8 de marzo, **Día Internacional de las Mujeres**, que, este año, de manera significativa, **visibiliza la labor que las mujeres han desempeñado durante la actual crisis sanitaria**.

Ha sido la Concejala de Igualdad del Consistorio bilbaino, *Nekane Alonso*, quien ha explicado la elección del lema y los objetivos de la campaña. “*En el marco de la estrategia para promover el empoderamiento de las mujeres, [Andre eta Jabe](#), queremos reivindicar la necesidad de impulsar medidas que favorezcan la corresponsabilidad*”, ha manifestado Alonso.

En esta ocasión, el lema escogido por el área de Igualdad ha sido “**Eta zu, nola moldatzen zara? / Y tú... ¿cómo lo estás haciendo?**”. Según han trasladado, “*con este mensaje visibilizamos las desigualdades y las dificultades a las que nos hemos y estamos enfrentando las mujeres durante la pandemia*”. Además, han puntualizado que “*se trata de hacer un llamamiento a la **corresponsabilidad social** donde la participación individual, de hombres y mujeres, así como la colectiva, de empresas e instituciones es imprescindible*”. Sobre la corresponsabilidad, la Concejala bilbaina, ha asegurado que resultar ser “*la única estrategia empresarial para mejorar nuestro bienestar y calidad de vida y para atraer y fidelizar talento. En definitiva, mejorar la productividad y la competitividad*”. Nekane Alonso también ha indicado que esta campaña quiere que sea “*un mensaje esperanzador, empoderado y de reconocimiento para todas nosotras, para todas las mujeres*”.

### **IMPLICACION PARA LOGRAR LA CORRESPONSABILIDAD**

El Ayuntamiento de Bilbao, con la campaña de comunicación y sensibilización diseñada para conmemorar el próximo 8 de marzo, persigue la consecución de tres objetivos, que se centran en la **implicación tanto de las organizaciones como de las y los trabajadores, de manera especial, de los hombres, para consolidar modelos de trabajo basados en la corresponsabilidad y que no generen desigualdades entre mujeres y hombres:**

1. Reconocer la **aportación de todas las mujeres** en esta época de crisis sanitaria.
2. Valorar los nuevos **modelos de gestión del trabajo** que se han impuesto para mantener los empleos, la producción y los servicios, pero reflexionar sobre su impacto en el **avance de la igualdad** y en la necesidad de **incorporar la perspectiva de género**.
3. Fomentar la **corresponsabilidad** para no generar desigualdades entre mujeres y hombres.

Durante la rueda de prensa, la Concejala de Igualdad ha descrito **la situación que muchas mujeres han vivido durante el confinamiento y en estos meses de pandemia**, *“las tareas no remuneradas en casa, así como el cuidado de mayores, niñas y niños han caído de nuevo en manos de las mujeres”* y ha añadido que *“se han desdibujado los límites de los espacios y tiempos entre lo laboral y familiar, y en ocasiones hemos dejado de lado el espacio personal”*. Asimismo, ha reconocido que *“la desigualdad entre hombres y mujeres a la hora de asumir responsabilidad del ámbito privado se ha hecho más evidente que nunca”*.

Respecto al **impacto en la conciliación familiar y laboral** y otras formas diferentes de discriminación que pudieran haberse dado en este periodo de tiempo, el área de Igualdad ha realizado, junto a las empresas que participan en la [RED DENBBORA SAREA](#), un diagnóstico sobre el impacto de las medidas que se han adoptado tras el COVID 19 y así han podido valorar su posible efecto en términos de igualdad de mujeres y hombres.

Entre las primeras conclusiones destaca que las empresas que cuentan con estos modelos de gestión empresarial, que ya estaban comprometidas en facilitar una mejor gestión del tiempo y la conciliación de la vida laboral, familiar y personal han sido quienes mejor se han adaptado a la situación. Además, según han explicado, estas organizaciones han presentado mejores resultados en su cuenta de beneficios y también en sus cuentas no financieras como clima laboral, igualdad de mujeres y hombres e impacto medioambiental.

En el estudio efectuado por la Red Denbbora se han llevado a cabo entrevistas a **10 empresas de diferentes sectores y tamaños**, y que suman un total de 3.902 personas entre sus plantillas (2.110 mujeres y 1.792 hombres). Los datos apuntan que si bien hay un porcentaje significativo de mujeres y de hombres que afirman que las responsabilidades de las tareas y cuidados se han repartido equitativamente, ellos siempre valoran algo más esta equidad. Sin embargo, si hay diferencia entre las tareas, los hombres participan más en las compras pero menos en las labores de cuidado y de apoyo escolar. Además, actualmente, se observa que, en la situación actual, mujeres y hombres han igualado el porcentaje en lo referente a permisos y licencias (86%/87%), por lo que vamos por el buen camino para fomentar la conciliación corresponsable.

## **WEBINAR: “CONCILIACION CORRESPONSABLE. EL RETO POR LA IGUALDAD**

Otra acción, que se llevará a cabo en el marco de esta fecha, será un webinar el miércoles, 10 de marzo, que se podrá ver en la [web del Ayuntamiento](#), a partir de las 18:00 horas, con el título “**Conciliación corresponsable. El reto por la igualdad**”.

En esta sesión online, **Rosa Cobo Bedia**, teórica feminista, escritora, profesora titular de Sociología del Género en la Universidad de La Coruña y directora del Centro de Estudios de Género y Feministas de la misma universidad, abordará los roles de géneros y los comportamientos de las personas, hombres y mujeres, tanto en el espacio privado como en el público.

En el webinar también participará **Teresa Empar Aguado Bloise** que reflexionará sobre las actuales medidas para la conciliación y las líneas de actuación futuras para adecuarlas a las necesidades de las mujeres desde una perspectiva feminista. Aguado es Doctora y Profesora del Departamento de Sociología y Antropología Social de la Universitat de València (UVEG). Es miembro del Instituto Universitario de Estudios de la Mujer (IUED) de la UVEG. Ha sido distinguida con el Premio de Divulgación Feminista Carmen de Burgos de la Asociación Estudios Históricos de la Mujer (AEHM) de la Universidad de Málaga. Sus líneas de investigación se sitúan en los estudios de la Sociología del Trabajo, el Género y la Economía Feminista.

## **ELEMENTOS DE LA CAMPAÑA**

Esta nueva campaña municipal se comenzará a ver en los próximos días en diferentes soportes físicos y mobiliario urbano, y en formato digital en la web de [www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus) y en las cuentas del Ayuntamiento en las redes sociales: **Bilbao Berdintasuna** – [facebook](#) y [twitter](#)- y **Bilbao Udala** –[facebook](#), [instagram](#) y [twitter](#)- y en medios de comunicación.

## **REDES SOCIALES**

- **BILBAO UDALA:** [Facebook](#) [Twitter](#) [Instagram](#)
- **BILBAO BERDINTASUNA:** [Facebook](#) [Twitter](#)

**#Martxoak8**

**#8Marzo**

**#Bilbao**

**#EmakumeenNazioartekoEguna**

**#DialInternacionalDeLasMujeres**